

Dinosauro pisutsu eta osoena



Dreadnoughtus schrani dinosauroak 60 tonako pisua izan zezakeen. ARG.: MARK A. KLINGLER, CARNEGIE MUSEUM OF NATURAL HISTORY.

Barazki-jalea zen, 26 metro luze, eta 60 tona inguruko pisua ei zeukan. Patagonian bizi izan zen duela 77 milioi urte, eta oraintxe erakutsi dituzte lehen aldiz haren aztarna fosilak. *Dreadnoughtus schrani*

izenarekin bataiatu dute orain arte aurkitu den dinosauro lurtar handiena.

Aurkikuntza egin zuten Estatu Batuetako eta Argentinako ikertzaileek, *Nature* taldeko *Scientific Reports* aldizkarian eman dute haren

berria. Sinc Kenneth Lacovara paleontologo eta ikerketa honen zuzendariaren arabera, aurkikuntza honi garrantzia berezia ematen diona, hezurduraren osotasuna da. “100 hezur aurkitu ditugu, eta uste dugu orotara 142 izan zitzakeela”.

Beraz, hezurdura osoaren % 70 aurkitu dute. Buztanaren ornoak, lepokoak, saihets-hezurak, behatzak, atzapar bat, masailezurra, hagin bat, eta gorputz-adarretako hezur gehienak berreskuratu egin ahal izan dituzte, tartean femurrak eta humero bat. Hezur bi horiek direnez koadrupedoaren masa kalkulatzeko erabili ohi diren oinarria, pisuaren kalkulua fidagarria da.

60 tonako gorputzaren kaloria-beharrari erantzun ahal izateko, zientzialariek uste dute dinosauroak egunaren zatirik handiena lan-

dareak jan eta jan pasatuko zuela.

“Pisuaz gain —dio Lacovarak—, hezurrek erakusten dute hil zenean oraindik dinosauroa hazten ari zela. Lurrean ibili diren izaki handienen adibiderik onena da”.

Hezurdura berreskuratzeko, ikertzaileek lau indusketakanpaina egin zituzten 2005 eta 2009 urteen artean, Argentinako Patagonian, Chubut probintzian. *Dreadnoughtus schrani* erraldoia aurkitutako tokian, beste txikiago bat ere bazegoen, baina hezurdura ez zegoen hain osoa. “Uste dugu bat-bateko uholde batek harrapatuko zituela, lurra harea mugikor bihurtu eta biak irentsiko zituela. Horregatik egongo dira hain egoera onean. Haien zoritxarra gure zoriona izan da”.



Kenneth Lacovara dinosauroaren tibia baten ondoan etzanda. ARG.: KENNETH LACOVARA.